

AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO

El grupo municipal UdalBerri-Bilbao en Común presenta al próximo Pleno Ordinario esta proposición para su debate y aprobación relativa a la “saturación de los Centros de Salud en determinadas zonas de Bilbao”.

PROPUESTA

El Pleno del Ayuntamiento de Bilbao insta al Equipo de Gobierno a:

1. Realizar un diagnóstico participativo con asociaciones vecinales, el Colegio de Médicos de Bizkaia, sindicatos y asociaciones que trabajan en el ámbito de la salud en torno a la saturación de los Centros de Salud de nuestra ciudad.
2. Instar al Departamento de Salud del Gobierno Vasco a reforzar el servicio de atención primaria de los centros de salud de la Villa ampliando el personal y mejorando las instalaciones.
3. Estudiar e impulsar conjuntamente con el Gobierno Vasco la construcción y/o ampliación de los Centros de Salud en aquellos barrios que se diagnostique necesario y comprometerse a poner a disposición locales municipales para habilitar Centros de Salud en aquellos barrios que lo precisen, como es el caso de Irala-Ametzola.

JUSTIFICACIÓN

Bilbao cuenta con una red de centros de salud manifiestamente insuficiente al tamaño y disposición geográfica de nuestra ciudad. Así, son numerosas las quejas de la ciudadanía en torno a la saturación de éstos sobre todo en algunos barrios, como es el caso de San Inazio.

Así mismo, las propias demandas de Osakidetza de cara al diseño del avance del Plan General de Ordenación Urbana, señalaban la necesidad de habilitar un Centro de Salud para los barrios de Irala y Ametzola a corto plazo, así como la necesidad a medio plazo de dotar de equipamientos sanitarios a barrios como Masustegi-Monte Carmelo o Uretamendi-Iturrigorri-Peñasal.

En este sentido, desde UdalBerri – Bilbao en Común consideramos que es imprescindible un diagnóstico y posterior diseño de la situación de saturación de los ambulatorios de nuestra ciudad, el cual debe realizarse de forma conjunta con las asociaciones vecinales, el Colegio de Médicos de Bizkaia, representantes de las y los trabajadores de los centros y asociaciones que desarrollen su actividad en el ámbito de la salud.

Bilbao, a 5 de febrero de 2019.



Fdo. Amaia Arenal Vidorreta
Concejala UdalBerri-Bilbao en Común

BILBOKO UDALAREN OSOKO BILKURARI

Datorren Ohiko Osoko Bilkuran UdalBerri-Bilbao en Común udal-taldeak "Bilboko gune jakin batzuetako Osasun Zentroen saturazioari" buruzko proposamen hau aurkeztuko du, eztabaidatu eta onartzeko.

PROPOSAMENA

Bilboko Udal Osoko Bilkurak honako hau eskatzen dio Gobernu Taldeari:

1. Auzo-elkarteekin, Bizkaiko Medikuen Elkargoarekin, sindikatuekin eta osasunaren eremuan lan egiten duten elkarteekin batera gure hiriko Osasun Zentroetako saturazioari buruzko diagnostiko bat egitea.
2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari gure hiriko osasun zentroetako lehen mailako arretako zerbitzua indartu dezan eskatzea, langile kopurua handituz eta instalazioak hobetuz.
3. Eusko Jaurlaritzarekin batera, beharrezkoa dela diagnostikatzen den auzoetan, adibidez Irala-Ametzolaren kasuan, Osasun Zentroen eraikuntza eta/edo zabalkuntza aztertu eta bultzatzea, eta behar duten auzoetan Osasun Zentroak gaitzeko udal-lokalak eskura jartzeko konpromisoa hartzea.

JUSTIFIKAZIOA

Bilbok argi eta garbi nahikoa ez den osasun-zentroen sarea dauka, gure hiriaren tamaina eta kokaera geografikoa kontuan izanik. Izan ere, erabiltzaileek kexa asko aurkezten dituzte osasun-zentroetako saturazioari dagokionez, batez ere auzo jakin batzuetan, San Inazion, besteak beste.

Era berean, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapenaren diseinuari begira Osakidetzak egindako eskaerek ere adierazten zuten beharrezkoa zela Osasun Zentro bat gaitzea Irala eta Ametzola auzoetarako epe laburrean, eta epe ertainean beharrezkoa izango zela ekipamendu sanitarioez zuzkitzea Masustegi-Monte Carmelo edo Uretamendi-Iturrigorri-Peñascal auzoak.

Ildo horretan, UdalBerri – Bilbao en Común taldeak uste dugu ezinbestekoa dela gure hiriko anbulatorioen saturazio-egoeraren diagnostikoa eta ondorengo diseinua egitea, eta hori guztia auzo-elkarteekin, Bizkaiko Medikuen Elkargoarekin, zentroetako langileen ordezkariekin eta osasunaren eremuan lan egiten duten elkarteekin batera egin behar da.

Bilbo, 2019ko otsailaren 5a.



Izp.: Amaia Arenal Vidorreta
Udalberri-Bilbao en Común taldeko zinegotzia